


Euskadiko gazteen migrazio-mugimenduen azterketa
Euskadin jaio eta atzerritik bueltatutako gazteen tasa % 38 izan da
2012an

Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen atzerrirako migrazioen fenomenoak kuantifikatzera hurbiltze aldera, Euskal Estatistika Erakudearen (Eustaten) [Migrazio Mugimenduen Estatistikaren informazioa](#) aztertu du [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Azterketa horretan, 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak hartzen dira gaztetzat, eta 2000tik 2012ra bitarteko tartea hartu da aztergai.

Azken hamabi urteotan, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emigrazioak gora egin du gutxinaka, baina modu konstantean: 2000n 96 gaztek emigratu zuten; 2012an, 1643k. Hala ere, nabarmendu beharra dago EAetik atzerrira joandako gazteen emigrazioak % 2 egin duela behera 2011z geroztik.




2012an atzerrira joandako gazteen jaiolekuari dagokionez, gehienak (% 67) atzerrian jaioak ziren, eta % 30 EAEn (493 gazte, zehazki). Gainontzeko % 3 Espainiako Estatuko beste nonbait jaioak ziren.

18 eta 34 urte bitarteko gazteen atzerrirako emigrazioa, jaiolekuaren arabera.													
Bilakaera 2000-2012 (datu absolutuak)													
Jaiolekua	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
EAEn jaiok	36	520	90	593	587	396	431	596	508	493	456	593	493
Espainiako beste nonbait jaiok	6	36	34	112	118	36	28	61	51	53	55	62	42
Atzerrian jaiok	54	107	148	231	253	348	423	702	987	938	950	1026	1108
Guztira	96	663	272	924	958	780	882	1359	1546	1484	1461	1681	1643

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta (Migrazio Mugimenduen Estatistika).

Migrazio Mugimenduen Estatistikak, EAeko gazteen irteerez ez ezik, atzerritik EAera iritsitako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen kopuruaz ere informatzen du.


Azpiko grafikoan ikus daitekeen bezala, 2007an iritsi zen EAera gazteen kopururik handiena. Harrezkero, gazteen atzerritiko immigrazioak behera egin du, 2012an 4186 izateraino.



Datu horien arabera, gehiago dira atzerritik EAera datozen gazteak (4186), EAetik atzerrira doazenak baino (1643).

Etorrin gazteen jatorriari erreparatuta, EAEn jaiotako gazteetatik Euskadira zenbat bueltatu diren jakin dezakegu: 2012an, 187 gazte.

EAEn jaiotako eta atzerritik Euskadira itzultutako gazteen bilakaera beheranzkoa izan da azken urteotan.



Azterketa honetan 18 eta 34 urte bitarteko gazteak bakarrik aintzat hartu dira, eta, beraz, baliteke gaztetan emigratutako hainbat lagun EAera bueltatzea 34 urteak igarota. Hala eta guztiz ere, datuok baliagarriak izan daitezke gazteen emigrazioaren jarraipena egin eta atzerritiko itzulera-tasa kalkulatzeko.

EAEn jaio eta epe jakin batean atzerritik Euskadira bueltatzen diren gazteek EAEn jaio eta atzerrira joandako gazte guztien artean hartzen duten ehunekoa lortuta kalkulatu da tasa hori.

Honi dagokionez, aipatu beharra dago Migrazio Mugimenduen Estatistikak, azterketa honetako datuen iturriak, ez duela norbanakoen bizi-ibilbidea aztertzen eta, beraz, ez duela erregistratzen subjektu berak emigratzen duen eta beranduago immigratu. Urte jakin batean erroldan egondako alden eta baje kopuruak baino ez ditu eskaintzen. Hala ere, Euskaditik emigratzen duten gazteak zein neurritan bueltatzen diren azter daiteke itzulera-tasari esker.

EAEn jaio eta atzerritik itzultako gazteen tasa % 38 izan da 2012an. Tasak ez du joera linealik erakusten, eta aldaketa garrantzitsuak izaten dira urte batetik bestera. Nolanahi ere, beherakada nabari da 2008az geroztik. Horrek esan nahi du krisiak ez dituela gazteak bueltatzera animatzen.

Atzerritik itzultakoen tasa, EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean.													
Bilakaera 2000-2012 (%)													
%	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Atzerritik itzultakoen tasa	197	33	257	56	77	93	70	43	56	57	55	41	38

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta (Migrazio Mugimenduen Estatistika).

Eustaten Migrazio Mugimenduen Estatistikak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzaren arloan urterik urte gertatzen diren aldeak (jatorria nahiz jomuga atzerrian izan nahiz Espainiako Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan) ebaluatzea du helburu. Horretarako, Udal Errolda erabiltzen du datu-iturri gisa. Errolda administrazio-izaerako erregistroa da, eta ematen duen informazioan nolabaiteko gorabeherak egon daitezke. Izan ere, ezagun da erroldari ez zaizkiola kanporako egoitza-aldaketa guztiak jakinarazten.

Hala eta guztiz ere, Eustaten Migrazio Mugimenduen Estatistikak eskaintzen dituen datuak hainbat urtetakoak dira, maiztasun eta metodologia egonkorrekoak. Horri esker, informazio-iturri baliagarria da fenomeno honen jarraipena egiteko.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

